


**Viktor Jakimovskiren
poema-bilduma**

(Hitzaurrea: Marija Makeska)



Itzultzailea: Ekaitz Goienetxea Cereceda

bestehitzak
||| |

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



otherwords
||| |

Hitzaurrea: Marija Makeska

Itzultzailea: Ekaitz Goienetxea Cereceda

Gozamena da Viktor Jakimovski bezalako poeta bat irakurtzea, ulerterraza da bere lana, xehetasun handikoa eta gaiari heltzen dakiena. Poema bilduma hau, 2016ko udaberri-udan egin eta aurkeztu zuen Euskal Herrian, Beste Hitzak – Other Words egitasmorako (Europako Batzordeak babestutako programa), hedadura urriko hizkuntzak sustatzeko, hala nola mazedoniera. Proiektua Pasaian garatu zuen, bi hilabeteko tartean, eta euskal kultura eta tradizioak aztertzeo aukera izan zuen Viktorrek egonaldi hartan, baita bere burua adierazteko ere, sormenaren bidez.

Datozen poemak bere lan pertsonala dira, eta horietako batzuk egonaldian bertan aurkeztu zituen. Irakurtzeko ederrak eta interesgarriak dira, eta poeta esaten ahalegintzen ari dena ulertzeko hainbat bider leitu beharko ditu irakurleak.

- *Kolore itsua* galduta dabilen gizon bati buruzkoa da, bere ilusioaren baitan bizi dena daltonikoa balitz bezala.
- *Zure mahaia libre dago* iraganean elkarrekin edanean ibiltzen ziren baina orainaldian banatuta dauden lagunez ari da; poetak beraien arteko zorion egun zaharrak ekartzen ditu gogora.
- *Gure zeru azpian*, iluntasunaren ostean zerumugan geratzen den argiari buruz da.
- *Ametsen aurretik* etorkizun hobe baten ametsaz ari da.
- *Euria* metafora bat da, biosferaren parte izateko erortzen den tanta bat, bizimodu humanoa edukitzeko bere baitan.
- *Arau (des)idatzia* bizitzaren, eta amodioaren, gutun berri bat abiatzeaz ari da.
- *Dakienak, badaki* poema berba bila ari da bizitzari buruzko galderi erantzuteko.
- *Gotorlekua* olerkian, idazleak gogoan hartzen du bere bizitzan oso garrantzitsua den pertsona, baina harekiko harremanaz zalantza egiten du.
- *Zu* norbaiti buruz ari da, idazleak dioenez “maitatzea merezi” duen norbaiti buruz, bere bizitzako parte den hurbilekoa.
- *Bagoaz aurrera*, zirkulantziak gorabehera, pausuak ematen jarraitzeaz ari da.
- *Noizbait galdetzen badidazu* poeman, idazlea beste norbaiten parean dago, isiltasunari betirako eutsiz, pertsona hori maite ote duen galderaren aurrean.
- *Destinua – Ametsak* olerkian, kontraesanean jartzen du bere burua idazleak, ametsen eta destinuaren onurekin eta kalteekin.
- *Hor zaude zu*, nagoen tokian, autorearen ametsa da maite duen norbaitekiko, edonon ageri zaiona, konszientean eta subkonszientean. Autoreak idazteko gai dena baino garrantzitsuago zaionez pertsona hori, autoreak ez du sekula ezer idatziko.

KOLORE ITSUA

Isiltasuna ez da gai
pentsamendua adierazteko
ez nuen sekula erabili koloreztatzeko libururik
margoak hautsi ez besterik
nire maskulinitasuna frogatu ahal izateko
olatu biren artean nabigatzen dut
hiru itsasotan bizi
galduta sentitzen naiz hegaldian
duela aspaldi utzi nion erregu bila aritzeari
bizi naiz ilusio baten baitan
biziraun ahal izateko nire neure kaosean
dudan bizitza da hain sinpleki konplikatua
oinarritua bi koloretan
eta ni daltonikoa baino ez

ZURE MAHAIA LIBRE DAGO

Pacaya. Nork izango du noren falta
olatuek separatzen gaituztenean
egunak gure gainera erortzean
itsasontziek partitzean
nork babestuko ditu memoriak?

Arkupe!

Zelako gauak pasatu ditugu hor
Zelako egiak mozkortu ditugu hor
Madarikatua atzerriaren
edertasun are handiagoa.

Zu, zu izan zarena egiaren nire zerbitzari,
nola idatz zaitzaket hemen, poema honetan
ez didazunean esan ezta zure izenik ere?

Deituko zintuzket ez izen,
utziezu ero nazaten dei,
deitzen zaitudanean isilka.

Lau hankadun nire lagun,
biok dakigu denbora
ez dela kabitzen
edalonzi hutsetan
edo bete berri direnek
badezaketenik ekarri atzera gure denborak.

Pacaya, Arkupe!

Arkupe, Pacaya!

Ni eta egia bezala
ardo eta poesia legez.

GURE ZERU AZPIAN

Argi honetan
hitzak galtzen ditugu
zeru honen azpian,
istorioak sortzen ditugu
frogatzeko
gure existentzia.
Iluntasuna da gure
indarrik gorenena,
beldurrik izugarriena
gure engainurik
sekulakoena
jarraitzen duena
argi berri bat.
Zerumugako ispiluak
gaur bizi dugun denbora tartean,
bere baitako gauza oro
dira gure erreinutxo
non gu guztiok
bilatzen dugun geure askatasuna;
non izpiritua eta denbora
bat bakarra dira
apurka galtzen dugularik
gure gorputzen zutabeen
heldulekua.

AMETSEN AURRETIK

Gaueko orduan
gure odolean dabiltzanean
memoriak, irudiak, emozioak
Gaueko orduan
goiza galtzen dugunean
etorkizun hobe baten esperoan
Begiratzen dugunean erlojua
eta nolabaiteko lasaitasunez
pozten garen hurrengo
egunsentiaz
Orduan, ez zaigu axola
nor garen
edo izango garen
Gaueko orduotan
ez gara unerako baino bizi
izarrekin batera izaten gara
eta Ilargiarekin
Segundu bakarrera bata bestearengandik
eta gogoetak infinituan hondoratuta
bizi gara ametsaren baitatik
amesten ere hasi aurretik.

EURIA

Seinale ote da
zeuriak bakartiak izatea?
Edo ostantzean naturaz gaindiko frenetiko
den euri tanta jolas –
nor izango ote lehendabiziko iristen lurrera?
Bitxia!
Euri tanta banintz ni
ez nuke sekula nahi izanen
erori
eta izan kaosaren zati
deiturikoa *giza bizialdi*.
Banintz ni euri tanta
bihurtuko nintzen lagun txoriena
eta igo beraien askatasunaren albora.

ARAU (DES)IDATZIAK

Nahi nuke hasi
bizitzaren gutun berri bat.
Nahi nuke nire egunak balira
idatzi bako poesia
edonork uler dezakeena.
Nahi nituzke nire goizak hasi
letra Larri batekin,
eta arratsa erortzean
eta ilunpeak garaitu
espazioa
nahi nuke hormako argia biztu
nahi nuke aurrera segi harilkatuz
amodio mezu berriak
nire zorioneko izarraren pean.
Baldin bazenuke, halabeharren batez, igarri
akats tipografikorik
senti zaitez aske emateko gutunari
buelta.
Hor dago idatzita –
zuzentzaile soil eta bakarra bizitza bera da.

DAKIENAK, BADAKI

Jakin izan banitu hitzak
agian nituen
frogatuko
idaztezinak...
Orain sentitzen naiz hutsik barrutik
otsoa bezala
dabilenean
harrapakin bila
ari naiz hitzen miaketan
ezkutatu direnak nonbait bakardadean.
Baita orain ere, jarraitzen dut jakin gabe non arakatu.
Agian mundu diferenteren baten
bizitzak historia hobea sortu izanen zuen?
Galdera asko geratu dira gure atzean,
garai lauso hauetan –
gure geure argia sortzen dugu.
Oh, bizitza!
Ez al da lotsatzekoa galdetzea:
Zergatik urrundu zenituen gure patuak hain goiz
ginenean destinatuak izatera bat bakarra?
Nahiz eta bi erditan
zaituak...

GOTORLEKUA

Gazteegia naiz promesa handiak egiteko
berotzen dutenak zure bihotza
egin ditzadala espero duzun bitartean zakur itxaropentsu baten antzera.
Ez nazazu izatera behartu
sasi-koadro bat
lurrera botatzeko dagoen hormatik eskegita.
Izan ziren, izango dira, badira
egunak
ez ditugunak sekula ahaztuko.
Atseginez aski guretzako.
Patuari utzi bitartean
nire bizitza planifikatzen
gotorleku bihurtua naiz
tarteka
zure presentziaren faltan.

ZU

Agertu zinen hasi nintzenean desagertzen,
maitatzeaz ahaztu nintzen garaietan.

Zu zara pozten nauen arrazoia
eta bere izpiritua nirearekin elkartua.

Zu zara lorea azaleratzen dena elurretan
eguzkiaren beroa sentitzen aurrenekoa.

Zu zara nire gaztaroaren parte, memento bat
gau loaldi on baterako.

Zu zara dagoenik hitzik zailena ahoskatzeko
isilune ozenenaren uneetan.

Zu zara bildua eskuzabaltasunean, bidalia
opari antzean, zio batekin.

Zara apur bat orotarik,
edertasun guztiak batean,
hain zara maitagarria.

BAGOAZ AURRERA

Batzuetan pausu berri bat beharko genuke eman
sugar oldarkor baten gainean
ez diona gure oinak erretzeari utziko.

Baina bagoaz aurrera,
barruan berorik ez dugunetik
gure bizitzak bihurtu zirelarik
istorio izoztu bat
estalia behelainotan,
ezin dezakegu begiratu hortaz
inguratzen gaituen edertasuna
azal trinkoaren gainetik
estutzen dena gure zeruertzean.

INOIZ GALDETZEN BADIDAZU

Inoiz galdetzen badidazu:

Maitatu ote zaitut inoiz,

zutik geldi, soilki, begira egongo nintzaizuke.

Begira egongo nintzaizuke, eta ene baitan

hainbat erantzun nahasiko lirateke

baina jarraituko nuke

begira isilik.

Izan ere...

Nire erantzuna ez da isilune eternoa besterik.

DESTINUA - AMETSAK

Poztasunaren amets bat daukagu

baina bizi gara pozik gabe.

Bizitzaren amets bat daukagu

baina heriotza konbokatzen du sekretupean gure ondora bizitzak.

Argiaren amets bat daukagu

baina argia ez da iluna besterik.

Erosotasunaren amets bat daukagu

baina erosotasunak deserosotasun asko dauzka!

Paradisuaaren amets bat daukagu

baina misteriotsuki eramanak gara gu

Infernuko ateen aurrera!

Etorkizunaren amets bat daukagu

baina arimak dauzkagu pozoinduak memoriekin!

Zergatik ez diogu amesteari uzten eta kitto?

HOR ZAUDE ZU, NAGOEN TOKIAN

Orain, ezin zaitut aurkitu
poesiaren
idatzitako orrien artean.
Ez dago metaforarik zutaz,
baina, aizu, gauzarik onenak
ezin dira oharretan hartu.
Ez dute merezi izaterik
hautsez beteak eta ahaztuak apaletan urteetarako
irakurle kementsuren batek
utziko zaituena galdegin bezain laster
lagunen batek garagardo bat hartzera.
Zu zara nire etorri guztiak
nagoenean mozkorrik
eta mozkorrik ez nagoenetan egindako zorakeri bakoitza.
Batzuetan, agertzen zara baita ametsetan ere –
arrazoi bat gehiago
lo gehiago egiteko gaur gainontzeko edozein egunetan legez
eta desiratzeko zuzendariak
errepika dezala gure eszena beste behin gehiago.
Zenbat irribarre behar ditu pertsona batek
sentitzeko aski zoriontsu?
Zurekin, momentu bat besterik ez da behar
galtzeko nire burua betiereko poztasunean.
Zurekin, harrotasunak ez du zentzurik
eta egiten dudan ahalegin bakoitzak
ihes egiteko zugandik une batez baino ez bada ere
bihurtzen da gero eta alferrekoago.
Zu zara aldaketarik behar ez duen pathosa
izateko osotasun poetiko ezohiko bat.
Zu zara nire kontzientzia, baina nik, zoritxarrez,
apenas idazten dudan ez bada mozkorrik.